


FUNTSEZKO ELKARTEAK

Edozein proiektuk arrakasta izan dezan, kanpoko laguntza behar du. Gure kasuan, hainbat elkarte egin beharko ditugu gure egitasmoa aurrera eramateko. Hemen, elkarte horiei buruz hitz egingo dugu.

Lehenik eta behin, gure proiektua garatzeko, atalik garrantzitsuena aplikazioa programatzea da, eta guk jakinduria orokor bat dugun arren programatzaile bat kontratatuko dugu, emaitza ahalik eta hoberen atera dadin. Beraz, Fiverr bidez, hau da, freelance zerbitzuak eskaintzen dituen plataformaren bidez, aplikazioari forma emango dion programatzailea alokatuko dugu, aztertu dugunez prezioak normalean baino baxuagoak direlako eta langilearekin zuzenean hitz egin daitezkelako, segurtasuna bermatzen.



Aurrekoaren harira, aplikazio bat jendeak erabiltzeko nahitaez denda elektronikoetan argitaratu behar dugu, eta gizarte honetan mugikorra biztanleriaren gehiengo handi batek du, horregatik zentzudunena denez han jarriko dugu gure aplikazioa eskuragarri, alegia, Google Play eta App Store. Gainera, teknologiarik dagokionez hauek dira aplikazio bat eskuratzeko fateratuenak eta erabilerrazenenak, eta diru kopuru txiki baten truke txertatu dezakegu Mugifast.



Bestetik, gure aplikazioaren oinarria garraio publikoa denez, EAEko garraio enpresa desberdinekin harremanetan jarriko ginateke, horiek guri bidaien informazioa partekatzeke, edo GPSaren erabilera guk bezereoei eskaintzeko.



Bestalde, gure proiektuaren lehenengo bi urteetan UGGASAK eskaintzen dituen lokaletako bat alokatuko dugu. UGGASA Garapen Sozioekonomikorako Agentzia da, eta diru publikoa erabiliz hasi berri egin duten gurea bezalako enpresak laguntzen ditu, bide batez, Urola Garaian ekintzaitasuna sustatzeko. Horrez gain, funtsezkoa da taldekide guztiok lana eremu berdinean egitea komunikazioa hobetzeko, horrela proiektua modu errazenean eta emankorrenean gauzatzeko.

Azkenik, gure baliabide finantziarioak mugatuak direnez Eusko Jaurlaritzari diru laguntza bat eskatuko diogu gure proiektua hasi ahal izateko, azken finean gure aplikazioak onura egingo diolako Euskadiri, horrela, gure hasierako kostuei aurre egin diezaiekegu.